

## Giro ederra herriko kaleetan

Lehen ordutik iluntzera arte luzatu da Euskal Jaia; betiko moduan erabat ez eginda ere, partaideek onena eman dute, ohi bezala / 8

TXINTXARRI

## Eskertza beroa bidelagune

Ttakun Kultur Elkarte 30. urteurrena ospatzen hasi da; berarekin elkarlanean aritu diren eragileak bildu ditu Okendon / 9

Azaroaren 2an irekiko dute 'Bizikidetzarako memoria para convivir' erakusketa, Antonio Mercero aretoan / 2


**Udalbatzarrak 2022ko ordenantza fiskalak onartu ditu; udalak %2,2 igoko ditu bere tasa eta zergak / 3**

**Erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko ekitaldiak egingo dituzte Lasarte-Orian / 4**

**Buruntzaldea IKTko igerilariek markak ontzen eman diote hasiera 2021-2022 denboraldiari / 10**

### ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean, urriak 31: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



## Ez dirudi, baina badator hotza!!

**Aukera zabala dugu hotzari aurre egiteko**



**ELECTRICIDAD ARREGUI**

www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)



**SUONTZI ELEKTRIKOA**  
Gona-mahairako

**GAS-BONBONADUN BEROGAILUA**



**ERRADIADORE ELEKTRIKOAK**



**OLIO ERRADIADOREAK**



**AIRE BEROGAILUAK**

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Eskatu whatsapp bidez! **600 85 75 86**





Bizikidetzarako foroak kideak urriaren 22an egindako erakusketaren aurkezpenean. TXINTXARRI

## Indarkeriaren ondorioak ezagutarazteko ahalegina

Euskal Herriko eta Lasarte-Oriako indarkeriaren historia biltzen du 'Bizikidetzarako memoria para convivir' erakusketak. Bizikidetzarako foroak osatu du eta azaroaren 2an inauguratuko du. Azaroan zehar ikusgai izango da Antonio Mercero gunean

### Txintxarri

Bost hamarkadetakoa indarkeria eta haren ondorioak biltzen ditu *Bizikidetzarako memoria para convivir* erakusketak. Azaroaren 2an, astearte, zabalduko ditu ateak eta hilabete osoan ikusgai izango da Antonio Mercero aretoan. Han bertan aurkeztu zuten Lasarte-Oriako Bizikidetzarako Foroko kideek urriaren 22an.

"Lasarte-Oriako eta Euskal Herriko indarkeriaren historia azaltzen du", zehaztu zuen Lasarte-Oriako Bizikidetzarako Foroko kide Mari Karmen Ormazabal-ek. Erakusgaien nondik norakoan berri ematean, zenbait helbururen inguruan antolatuta dutila argitu zuen: Herriko biktimak "bere pluraltasunean" aintzat hartzea, terrorismoaren eta indarkeriaren ondorio sozial eta pertsonal larriak ezagutaraztea eta onartzea, aitortzean oinarritutako memoria kolektiboa eraikitzea, eta herritarrek konpromisoa hartzea giza eskubideen urraketen aurrean.

Hori horrela, erakusketa bera herriko zortzi biktimak eta hiru hildakoak omentzeko abagunea ere bada.

Bost panel grafikok osatzen dute erakusketa, hamarkada bakoitzeko bana. Euskal Herriari buruzkoetan 132 gertakari garrantzitsu bildu dituzte; herriari lotutakoak aukeratzeko, oinarritu egin dira udalak 2017an argitaratutako *Memoria partekatuta baterantz* txostenaren kronologian. Bizikidetzarako foroak kideek ohartarazi dutenez, irudietako batzuk gordinak dira eta zenbait zatitza mingarriak izan daitezke. Bilduma osatzen duten elementuen artean, bi esparruetako motibazio politikoko indarkeriari buruzko datuen grafikak ere badira. Horrez gain, herriko hogeitaz bat laguni egindako elkarrizketen bideoak eta erakusketako bideo ofiziala ere ikusteko aukera izango dute bisitariak.

Azaro osoan zabalik egongo da, astelehene ostiralera, 17:30etik 20:30era, eta larunbatetan, 11:00etatik 13:30era. Halaber,

taldeen eskaeraren arabera, astearte eta ostegun goizetan 11:00etatik 13:00etara ere irekiko dute.

Bizikidetzarako foroa 2014an abiarazitako bizilagun talde heterogeneoa da. Kezka partekatuen inguruan ari da lanean: "Bizikidetzarako berreraikitzea auzotasunearen, hurbiltasunaren eta akordio etikoaren ikuspegitik, elkargune gisa". 2017an Argituzek Lasarte-Oriako 1956-2016 urteen artean gertatutako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketan jasotako errealitatea ezagutarazteko ahalegina egitea du taldeak. Hala, tokiko biktimekiko topaketa prozesu bati ekin zion, eta herritarren errekonozimendurako espazioak sortu zituen, "indarkeriak, isiltasunak eta lubakiek hautsitako loturak berreraikitzeke".

Hurrengo urratsa izan da Euskal Herriko eta herriko motibazio politikoko indarkeriarekin lotutako historia eta bizipenak lasarteoriatarrei ezagutaraztea, erakusketa horren bidez.



Udal ordezkariak espero dute 2022ko Inauteriak "normaltasunez" ospatzea. T. VALLES

## Udalak 2022ko Inauterietako gaia aukeratzeko deia egin du

Eskuorriak banatu ditu etxez etxe; herritarrek horiek bete eta udaletxera eraman beharko dituzte azaroaren 5a baino lehen

### Txintxarri

Zertaz mozorrotu nahi zenuke herria 2022. urteko Inauterietan? Hori da Lasarte-Oriako Udalak herritarrei luzatu dien galdera. Gaia erabakitzeke parte hartze prozesua ireki du; proposamenak egiteko azken eguna azaroaren 5a izango da, ostiralera.

Agustin Valdivia alkateak, Partehartze batzordeburu Nagore Duranek eta Ospakizunetako batzordeburu Txus Alonsok aurkeztu dute egitasmoa. "Une horretako osasun egoera nolakoa den ikusi beharko dugu, baina 2022ko Inauteriak normaltasunez ospatzea gustatuko litzaziguke", adierazi du azken horrek. Urriaren

18an konpartsekin elkartu zen udala, eta Alonsoren aburuz, eragileak "oso animatuta" daude ekitaldia antolatzeke.

### Txartelak, etxez etxe

Duranek azaldu du udala hasi dela proposamenak idazteko txartelak banatzen herritarren etxeetan. Eskuorria bete, eta udaletxeko bulegoetako postontzietara eraman beharko dute herritarrek, azaroaren 5a baino lehen. Eskuorri horiek hiru egun geroago bilduko ditu udalak, eta datorren urteko Inauterietako gaia erabakitzeke "oinarrizkoak" izango dira, konpartsetako kideen iritziekin batera.

## Manttangorri hiribusak zerbitzu berezia emango du

Domu Santu eguna dela-eta Illarraltzueta hilerrira joatekotan direnei zerbitzu berezia emango die Manttangorri hiribusak. Urriaren 31n, igandean, 16:00etan, 17:00etan eta 18:00etan aterako da autobusa Antxisutik. Itzulera orduak 16:30ak, 17:30ak eta 18:30ak izango dira. Hurrengo egunean, azaroaren 1ean, goizez ibiliko da: 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00ean, Antxisutik. Itzulera orduak 09:30ak, 10:30ak, 11:30ak, 12:30ak eta 13:30ak izango dira.

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du azaroaren 1ean itxita egongo dela udaletxea, Domu Santu eguna delako.

## Pandemiaren osteko bidez, Biyak Bat egoitzako kideekin

Biyak Bat egoitzak jakinarazi du hilaren 29an *Urratsez urrats!* Pandemiaren ondoren bideari ekiten proiektuari buruzko aurkezpen bilera antolatu duela. 16:00etan hasiko da. Egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak (AGIJUPENS) eta Bat Bi Ta Hiru zein A flor de piel enpresen garatu dute, eta adineko pertsonen "osasun sozial eta emozionala hobetzea" du helburu, "COVID-19aren ondoren euren udalerrietako normaltasunera aktiboki itzultzeke". Lasarte-Oriako adinekoen elkartearen ez ezik, beste bitan garatuko dute: Donostiako Kialde-n eta Guardaplata-n.

# Tasak eta zergak %2,2 igoko ditu udalak

Datorren urteko ordenantza fiskalak aldatzeko espediente onartu du udalbatzarrak. Hamasei emendakin jarri dizkiote alderdiek proposamenari eta, urgentziazko saio batean eztabaidatu ostean, lau onartu dituzte, beste lau kendu, eta zortzi baztertu

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak %2,2 igoko ditu tasak eta zergak 2022an. Datorren urteko ordenantza fiskalak jasotzen dituen espediente landu du udal korporazioak, ezohiko eta urgentziazko saio batean. Udal gobernuaren proposamenari gainontzeko alderdi guztiek aurkeztu dizkiote zuzenketak: Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek zazpi, EAJk bost eta EH Bilduk lau. Ekonomia, Ogasun eta Ondare batzordean landu zituzten aurrena; lau onartu zituzten, zortzi baztertu, eta lau kendu. Onetsi ez zituzten zortziak eraman dituzte saiora, eta banan-banan eztabaidatu ostean, dokumentua onartu edo ez erabaki dute, botoen bidez. PSE-EEK alde bozkatu du, eta beste hiruak abstenitu egin dira.

EAJren bozeramaile Jon Antxordokik balioan jarri ditu jeltzaleek landutako zuzenketak: "Bost hobekuntza aurkeztu ditugu, eta bi onartu dira: ur horniduraren tasa izoztea eta animaliak bide publikotik kentzeko tarifa igotzea". Bestek hiri hondakinen kudeaketari buruzkoak izan dira, eta bertan behera utzi ditu udalbatzarrak. "Tamalez, alderdi sozialistaren iritzia eta interesa ez dira berberak gai horretan". Udal gobernuari beste kritika

bat egin dio, zenbait ordenantza lan mahai berezi batzuetan lantzearekin zerikusia duena: "2020an iragarri zuten hori ofizialki, baina lan eraginkorrik ez da egin orain arte". EAJk uste du hori izan dela "aitzakia" udal gobernuak bere emendakinetako batzuk ez onartzeko. "Mahaiak lanean ari direla ikusi arte, ezin dugu bertsio hori sinetsi; gure proposamenak baztertua, herritarrei begira justuagoak izango lirakeen ordenantzak galduko ditugu, urtebetez".

Esan bezala, EH Bildu ere abstenitu egin da. Estitxu Garmendia zinegotziak adierazi duenez, arrazoietako bat da udal tasen eta zergen %2,2ko igoera "gehiagizkoa" iruditzen zaiola alderdiari, eta aproposagoa izango litzatekeela %1,5ekoa izatea. "Kontsumorako Prezioen Indizea [KPI] portzentaje horretatik gorakoa bada azkenean, argindarraren egiturazko prezio igoeratik izango da hein batean, eta sektore

**ALDERDI SOZIALISTAK ESPEDIENTEAREN ALDE BOZKATU DU; ELOP, EAJ ETA EH BILDU ABSTENITU EGIN DIRA**

horretako enpresen lapurreta ez dute zertan herritarrek pairatu behar". Horrez gain, udal gobernuari erregutu dio martxan jartzeko ordenantzak jorratzeko lan mahaiak, "hiri hondakinen afera ez ezik, beste gai batzuk ere jarri behar direlako mahai gainean: esate baterako, etxebizitzena". Garmendiak gogoratu du koalizio subiranistak "urteak" daramatzala hutsik dauden etxebizitzetara -700 inguru direla zehaztu du- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) %50 gainkargatzea eskatzen. "Etxebizitza horiek alokairuan jartzeko neurriak lantzea guztion ardura da".

Udal gobernuaren aburuz, igoera "moderatu" izango dute 2022ko ordenantzak. "Aurrezki Kutxen Fundazioak [FUNCAS] egin duen aurreikuspenaren arabera, KPIa %3 baino gehiago igoko da datorren urtean". Azaldu du igoera orokorra izango dela, baina badaudela salbuespen batzuk: ur horniduraren gaineko zerga, izoztea adostu dutelako; eskualdeko kirol tasak, udalerrri bakoitzekoak %1,4 igoko direlako; eta herriko baserriarrek haien produktuak saltzeko postuen tasak, %50eko hobaria emango zaielako, "lehen sektoreko langileei laguntzeko".



NEURE KABUZ  
AIZPEA AMAS

## Pantailak

'Ey, tío, pásamelo'. Burua giratu dut, eta nire seme nagusia bera harrapatu dut ustekabe esaldi hori botatzen. Behintzat, ez du 'bro' esan. Lagun bati baloia pasatzeko eskatzen ari zen, duela ez hainbeste euskaraz hitz egiten zion lagun bati, zehazki. Beti bezala 'ea zer esan duen' galdetu diot, eta euskarara itzuli du esaldia. Atsekabetuta, burua itzuli dut. Hurrengo esaldia ere gaztelaniaz izan da.

Iluntzean, etxera bueltatzerakoan, umeek telebistari tartetxo bat egin nahi izaten diotenez, urrutiko agintea hartuta, ETB3 jartzeko gonbitea egin diet. Ene kantak, berriz ere. Txikiena gustora geratu da, baina bizkarra eman orduko Youtube jarri dute, eta bideojokoetan aritzen den betiko youtuberra ikusten geratu dira biak. Etsigarria.

Aspaldian buruan dabilkidan kezka da euskarak gure haurren bizitzan zer toki duen. Euskara etxetik jasotzen duten haurrak gai dira edonorekin euskaraz hitz egiteko, baina zerbaitegatik nahiago dute euren artean gaztelania erabili.

Gure garaiko heroiak, Son Gokuk, euskaraz hitz egiten zuen Vegetarekin. Aldiz, egungo heroiak Internet den unibertso horretan sakabanatuta daude, eta munduko edozein puntetako edonor izan daiteke heroi. Zurrumbilo horretan, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da. Hori da, ordea, gure seme-alabek kozkortzen direnean ikusiko dutena. Gero, lagunekin ikusi dutena komentatzen dutenean ezetz asmatu zein hizkuntzetan egingo duten?

Txikiak direnean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Ene kantak, Goazen!... funtzionatzen du. Baina hortik aurrera, zer dago ikus-entzunezko edukiei dagokienez? Amildegia. Euskara, gurasoekin, irakasleekin eta eskola giroan hitz egiten duten hizkuntza bilakatzen ari da; hau da, diziplinarekin lotutako zerbait; eta aisialdian, lagunekin direnean, aske direnean, gaztelaniaren alde egiten dute.

Hautzaro eta gaztaroan, aisialdia gaztelaniaz egiten badute, helduak direnean zer espero dezakegu?

Amildegi horretan helduleku batzuk agertzen hasi dira, eta Pantailak Euskaraz bezalako ekimenei heltzen saiatu behar gara. Ea helduleku gehiago sortzeko gai garen, beharra badago eta...

GORKA LASA | ASIER ODRIOZOLA | GORKA ALVAREZ | JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA | NEREA SEGURA | LIERNI REKONDO | **AIZPEA AMAS**

## TXINTXARRI PUBLIZITATEA:

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?

publizitatea@ttakun.eus  
943-37 14 48 (106)  
646 82 44 66



Geltoki kalea 4,  
Lasarte-Oria

TTAKUN  
30 urte

30 urte beteko ditugu eta irudi berria dugu!

Produktuak salgai



Poltsa Motxila poltsa

Eskaerak: [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) | 646 82 44 66



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena

Zaindu ezazu zure azala!

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45

Manikura eta pedikura - Aurpegiko tratamenduak - Mola ezberinetako depilazioak - Solariuma



Lasarte-Oriako hainbat eragile ari dira erreferendumaren aldeko sinadura bilketa sustatzen. TXINTXARRI

# Hamaika arrazoi erreferendum egiteko

Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak hitzaldia eta ekitaldi nagusia antolatu ditu azarorako, erreferendumaren alde sinatzea hauspotzeko. "Urrats garrantzitsu bat egiteko unea" dela iritzita, jardueretan parte hartzera gonbidatu dituzte herritar guztiak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Herrian erreferendum bidez erabakitzearen aldeko atxikimendu bilketa masiboa da Hamaika Gara egitasmoa. Iaz abiarazi zuten ekimena makina bat eragilek, tartean, Gure Esku-k, erabakitzeko behar hori azaleratzeko eta galdeketa egiteko tresna prestatzea eskatzeko parlamentuei. Horretarako, herriz herri ari dira bultzatzen manifestu hori sinatzea.

Lasarte-Oriako hainbat herritar eta eragilek bat egin dute eskaerarekin, eta sinadura bilketa sustatzeko taldea eratu dute: Lasarte-Oriako Hamaika Gara. Horren harira, zenbait jarduera aurrera eramango dituzte datozen asteetan; Mirentxun elkartu dira, eta ekimenak aurkeztu dituzte. Azaroaren 3an egingo dute bat: Mario Zubiaga irakasle, politologo eta Gure Esku-ko zuzendaritza kontseiluko kidea gonbidatuko dute Oriarte Larrekoetxe instituturara. *Inoiz baino gehiago,*

*Gure Esku* hitzaldia emango du, 19:00etan hasita.

## Ekitaldi nagusia eta erronka

Erreferendumaren aldeko sinadurak jasotzeko ekitaldi nagusia azaroaren 21ean egingo du taldeak, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 12:00etan. Horren aurretik, mahaiak jarriko dituzte leku eta egun jakin batzuetan: Okendo plazan, Michelin fabrikaren eta futbol zelaian, herriko zenbait asteazkeneko azokan... "Martxan jarri nahi dugu 11 sinaduren erronka, hau da, norberak manifestua sinatzeaz gain, beste 11 lagun horretara gonbidatuko dituzten herritarrek aktibatu nahi ditugu". Taldearen ustez,

**SINADURAK BILTZEKO EKITALDI NAGUSIA AZAROAREN 21EAN EGINGO DUTE, KULTUR ETXEAN**

zenbat eta atxikimendu gehiago jaso, orduan eta aukera gehiago alderdi politikoek eta parlamentuek herri galdeketa "benetan" gauzatzeko tresna prestatzeko.

Manifestua sinatzea "garrantzitsua" dela uste dute, arrazoi hauengatik: "Herritarrok lortzen dugulako alderdi politikoak eta parlamentuak mugitzea; Euskal Herri osoan eta herrietan hezkuntza, osasuna, kultura, hizkuntza eta beste edozein arlo nola kudeatu herritarrek erabaki nahi dugulako, beste inoren menpe egon gabe; eta 2023. urtean Euskal Herrian ere prest egon nahi dugulako beste hainbat herrialderekin batera erreferendum egiteko". Gales, Irlanda eta Eskozia jarri dituzte adibidetzat, eta baita Katalunia ere. "2023rako ez badu fruiturik ematen Espainiar Estatuarekin abiatu duten elkarrizketa mahaiak, aldebakarreko bideari ekingo diotela zehaztu dute".

## "Eskubide bat lege bilakatzea da hemen jokoan dagoena"

MARIO ZUBIAGA GURE ESKU-KO ZUZENDARITZA KONTSEILUKO KIDEA

Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak antolatu dituen ekitaldietako bat da Mario Zubiaga irakasle, politologo eta Gure Esku dinamikako zuzendaritza kontseiluko kideak (Tolosa, 1963) azaroaren 3an emango duen hitzaldia, Oriarte Larrekoetxe institutuan, 19:00etan. **Lasarte-Oriako etorriko zara azaroaren 3an, Inoiz baino gehiago, Gure Esku hitzaldia ematera. Zeri buruz solastuko zara herritarrekin?**



MARIO ZUBIAGA

Pandemiaren osteko Gure Esku non eta nola kokatu behar den; hori izango da ardatzetako bat. Gertaera historiko bat bizitzen ari gara, osasun larrialdia gainditu dugu baina soziala, ekonomikoa, politikoa... oraindik ez. Non dago herria, eta non Gure Esku? Hori aztertuko dugu, hasieratik aldarrikatu ditugun hiru leloetatik abiatuta: herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta herritarren garaia da. Inoiz baino garrantzitsuagoak dira horiek. **Herritarrentzat ere inoiz baino garrantzitsuagoa da erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea? Pandemiak eragin du horretan?**

Izurritearen une larriaren batez ere, biziraupena egon da jokoan, eta hori izan da lehenetsua, argi dago. Edonola ere, horrek erabaki asko dakartza: sozialak, politikoak, ekonomikoak... Bertan kokatzen da erabakitzeko eskubidearen beharra. Izan ere, Espainiako botere judizialaren pean dagoen epaile batek erabaki dezake Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) nola kudeatu behar dugun pandemia eta nola ez? Gisa horretako erabakiak ez daude Euskal Herriaren esku, eta ez daude euskal herritarren esku. **Hamaika Gara egitasmoa izan daiteke herritar eta kolektibo ugari duten erabakitzeko nahiaren erakusgarri.** Hor islatzen da subjektu desberdinek duten erabakitzeko nahi hori. Gure Eskuk hau aportatzen dio: zentraltasuna ematea alor politikoari. Gai ugari buruz erabaki dezakegu, baina gure erakundeetan lantzen dira,

eta aske al dira hori egiteko? Burujabetza politikoa guk daukagu? Eragile bakoitzak garrantzi berezia emango dio gertuen sentitzen duen gaiari, eta Gure Eskuk ardaztu egiten du nahi hori: erakundeek burujabeak izan behar dute, hamaika gairi buruz erabakiak hartu ahal izateko gero.

**Berriki egin duzue Gure Eskuren asanblada orokorra. Bide orria zehaztu duzue?**

Kontziente gara orain arte gauza asko lortu ditugula, baina bidea dugula oraindik egiteko. Eskubide bat lege bilakatzea da hemen jokoan dagoena, eta horretara iristea ez da inoiz erraza izaten. Lehen urratsa gaia agenda publikoan kokatzea izaten da, eta hori gauzatu dugu. Agenda publikoan, eta instituzionalan, EAEko estatutu berriaren eztabaidaren korapiloa erabakitzeko eskubidea baita. Afera hori ez dago itxia oraindik, eta norabide horretan, sinadura bilketa martxan jarriko dugu. Ondoren, eskaera bat egingo diogu EAEko legebiltzarrari: "Paperak mahai gainean dituzue; orain, jar zaitzete ados erabakitzeko eskubidea era garbi batean arautzeko". Bestalde, 2022ko udan Pirinio mendiak argiztatuko ditugu bi aldeetatik, Euskal Herriatik eta Kataluniatik. Datorren urteko ekimen esanguratsua izango da hori. Horri lotuta, erreferendumaren gaiarekin leihatilak ireki daitezke Katalunian bertan eta Eskozian, eta gure lana izango da gizarte aktibatzea, Euskal Herriak tren hori gal ez dezan.

# XX. mendera arteko Lasarten gertatutakoak

'Retazos IV. Aproximación a la vida de Lasarte hasta el siglo XX (2)' liburuaren aurkezpena egin du Jose Luis Navarro Armendariz-ek. Jakin-min handia piztu du herritarraren lanak; Lasarteko bizitza osatu duten gertakizunak bilduz ondu du lana

## Txintxarri

Herritar ugari izan ditu ondoan Jose Luis Navarro Armendariz-ek bere azken liburuaren aurkezpen ekitaldian. *Retazos IV. Aproximación a la vida de Lasarte hasta el siglo XX (2)* lana ezagutarazi du. Alderdi politiko guztietako ordezkariak ere ez dute hutsik egin eta gogoz entzun dituzte guztiek egilearen hitzak. Diskurtsoa laburra izango zela iragarri die entzuleei. Horretarako atsotitz bat ekarri du gogora: "Ona, laburra bada, bi aldiz ona". *Retazos IV, Aproximación a la vida de Lasarte hasta el siglo XX (2)* lana, aurretik Navarrok berak idatzitako *Retazos II* liburuaren

bigarren zatia da. XVI eta XIX. mendeetan Lasarten gertatutakoak bildu ditu horietan.

Liburu horiek osatzeko, kultur etxeko artxiboaz baliatu da eta jakinarazi du dokumentazio hori guztia hiru liburukitan bilduta dagoela -horietan dauden dokumentuen berri ere eman du-. Artxiboko lan horren egile Antxon Aguirre Sorondo historialaria ekarri du gogora. Guztira, 193 dokumentuetatik, 122 erakutsi ditu *Retazos IV* liburuan; gainerakoak ez, aurretik *Retazos II*-n aurkeztu zituelako.

XVIII eta XIX mendeetako dagozkien zatiak bi multzotan banatu ditu: garai haietan Hernaniri zegozkion

eremuetan gertatuak batetik, eta Urnietari zegozkionetan jazotakoak bestetik. Horietan guztietan, Lasarterekin erlazionatutako gertakizunak aurkeztu ditu eta aipatu ditu horietako hainbat: Lasarteko Udala eraikitzeo obrak, San Pedro Elizako lanak edota komentuarekin zerikusia duten gertakizunak, besteak beste. Baina horien guztien artean, batek deitu du Navaroren arreta, bereziki; 1736. urtean Hernani eta Urnietako Udalek gaizkile batzuk jarraitzeko sinatu zuten akordioak.

Aipatu du Lasarteren bizitza osatu duten gertakizunetako liburuak irakurtzea "monotonoa"



Jose Luis Navarro herritarra, liburuaren aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

gerta daitekeela agian, baina ezin daitekeela nobela bat irakurtzearekin alderatu. Liburuaren helburua zein den argitu du gero: "Gure herriaren berri ematen duten idatziak ezagutaraztea da xede nagusia; bertako arazoez eta bizitzeko moduez informatzea. Horrek guztiak gure arbasoekin lotzen gaitu eta gure eguneroko ekintzeekin osatzen dugun

historiarekin". Zizeron politikari eta hizlari erromatarraren gogoeta batekin amaitu du diskurtsoa. Eta herritarrek, txalo zaparrada bero batekin eskertu diote egindako lana.

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du liburu eskuratu nahi duten herritarrek udaletxeko lehenengo soilaruan dagoen alkatetzara joan behar dutela.



Jakin-mina piztu du lasarteoriatarrengan 'El enigma de Txaldatxur' liburuak. Lepo bete da kultur etxeko hitzaldi aretoa. TXINTXARRI

## Ahantzuratik atera dute Txaldatxur gaina

'El enigma de Txaldatxur' liburuak argitaratu eta aurkeztu du Lasarte-Oriako memoria historikoa berreskuratzean diharduen Islada Ezkutatuak taldeak. Gain horretan 1936ko irailean gertatu zenari buruzko bigarren zatia ere publikatuko dutela aurreratu du

## Txintxarri

"Zer gertatu zen lasartearrekin eta oriatarrekin [Lasarte eta Oria batu gabe zeuden oraindik] 1936ko uztailearen 18ko altxamendu militarra eta gero?". Hamar urte baino gehiago daramatza Islada Ezkutatuak taldeak galdera hori erantzun nahian, eta herriko memoria historikoa ezkutatuta gera ez dadin saiatzeko. Norabide horretan, besteak beste, Zubietan dagoen Txaldatxur izeneko gaina berreskuratu du, kolpistek Donostiaraino ez iristeko gune estrategiko bat izan zela jakiteraino. Bertan gertatutakoa argitzeko asmoz, *El enigma de Txaldatxur* lana idatzi du taldeko kide Joxea Muguruzak, eta Lasarte-Oriako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin argitaratu. Islada Ezkutatuak bildumako bigarren alea da; lehenengoa, *Testigantzak. Genozidio baten islak*, iaz kaleratu zuten, eta berriki aurkeztu.

Txaldatxurri buruz idatzitakoak jakin-mina piztu du, lepo bete baita kultur etxeko hitzaldi aretoa. Joxea Muguruzak idazleak eta Agustin Valdivia alkateak hartu dute hitza ekitaldian.

Azken horrek taldearen eta idazlearen lana azpimarratu du. "Oriako bailaran Errepublikak defendatu zutenen eginkizuna ezagutuko dugu horri esker; 1936ko kolpe militarren ostean gertatu zena oroimenera ekartzea funtsezko lana da".

Muguruzak aletu ditu lanaren nondik norakoak, argazki historiko eta guzti: Gipuzkoara etorri ziren kolpistak nafarrak zirela, Txaldatxurreko guda 1936ko irailearen 3tik 19ra borrokatu zutela eta "oso bortitza" izan zela, beste xehetasun batzuen artean. Amaitu aurretik, Zubietako gain horren enigma nagusia zein den azaldu du: "Ahantzuratik atera dugu Txaldatxur, antza denez, 1920 eta 1930 bitartean izenez aldatu zutelako eta historiari desagertu zelako; Estenaga deitzen zioten lur zati horri, garai horretako bi mapatan ikusi dugunez". Liburuak irakurtzerako orduan, idazleak herritarrei eskatu die honako hau gogoan izateko: "Gerra Zibila ez, Errepublikaren aurkako kolpe militarra izan zen 1936koa. Hori ulertu ezean, gerra bateko balentrien bilduma da esku artean duzuen argitalpena".



Atsobakarreko langileek bat egin zuten urriaren 22ko mobilizazioarekin. Egoitza kanpoan egin zuten protesta. ATSOBAKAR EGOITZA

# Adineko egoitzetako langileen borroka luzea

Adineko egoitzetako langileen borroka ez du etenik. Kalera irten dira bizi duten egoera salatu eta ratio "duinagoak" eskatzeko, besteak beste. Lanuzteak ere egiten ari dira eta Atsobakar egoitzako langileek ere bat egin dute deialdi horiekin guztiekin

## Txintxarri

Gipuzkoako adineko egoitzetako langileen borroka ez du etenik. Protestak egin zituzten zentroetako atarrietan iragan ostiralean, urriaren 22an, tartean, Atsobakar egoitzakoek ere bai. Salatu zuten hiru "urte luzez" greban egon ostean, euren egoera "gero eta gordinagoa" dela. Jakinarazi zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak uko egiten diola hitzarmen duin bat negoziatzeari, eta erresidentzietako errealitatea onartu ordez, egungo eredu defenatzen jarraitzen duela. Hain zuzen ere, Markel Olano

diplutatu nagusiraren adierazpen batzuk ukatzeko irten ziren kalera: "Errealak ez diren ratioak daudela defendatzen du, gipuzkoako egoitzetan bi egoiliarreko langile bat dagoela esanez. Datu zuzena, ordea, honakoa da: hamahiru daude langileko", azaldu du ELA sindikatuak. Lasarte-Oriako Atsobakar egoitzako zenbait langilek ere ahaldu nagusiaren hitzak gezurtatu dituzte: "Gure egoitzan, hamabi erabiltzaile daude langile bakoitzeko".

Ratio eta egoera errealak zeintzuk diren aldarrikatzeaz

gain, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zioten erantzukizunez jokatu eta negoziatzera esertzeko.

## Mobilizazio gehiago

Protestek jarraipena izango zutela ere iragarri zuten; bi greba egun deitu zituzten. Horietatik lehena ostegunean, urriaren 28an egin dute eta Lasarte-Oriako Atsobakar egoitzako langileek bertan parte hartu dute. Prentsaurrekoa egin dute 11:00etan eta Foru Aldundiaren egoitza aurrean mobilizatu dira 11:30ean. Bigarren lanuztea azaroaren 12rako deitu dute.

## Saretzen jarraitzen dute

aSUnak talde feministako kideek Lasarte-Oriako neska\* gazteen eguna antolatu zuten. Hainbat ekintzez osatutako egitaraua iragarri bezala bete zuten eta giro atseginean aritu ziren elkarrekin. Buruberokien tailerrarekin hasi zuten eguna; udal euskaltegian batu, eta eskulanetan aritzeko tartea izan zuten. Zeregin horiek amaituta, baflepoteoa egin zuten 12:30ean eta indarrak errekuaratzeko, bazkari autogestionatua Xirimiri elkartearen.



TXINTXARRI



Herritarrek Zero Sette akordeoi taldearen musika emanaldiaz gozaten. TXINTXARRI

## Etenaldi luze baten ondoren, jendaurrean aritu da Zero Sette

Gertuko euskal doinu ezagunez osatutako erreperitorioa hautatu du Okendo plazan egindako emanaldirako

## Txintxarri

Okendoko agertokira ekimenez bete zuten urriko azken asteburuan. 23an, euskal jaiako erromeria bertatik girotu bazuten, 24an, akordeoiek hartu zuten oholta.

Kalera bueltatu zen Zero Sette eta lasarteoriatarren arreta piztu zuten. Eguerdia baino lehen hutsik zeuden aulkiak bete zituzten, tarte batez behintzat, musikariek jotako doinuak entzun nahi izan zituztenek. Zutik eta urrutigotik, tabernetako terrazetatik edo

plazako bankuetatik, esaterako; kontzertua jarraitu zutenak ere izan ziren. Lekua gutxienekoa zen.

Euskal kantekin osatu zuen erreperitorioa akordeoi orkestrak, batzuk zaharragoak, beste batzuk, berriagoak. Hauen artean, bezperan ere entzun zen Huntza musika taldearen *Aldapan gora*. Akordeoi jotzaileen saioa, ordea, ez zen hala joan, eta txalo moduan jaso dute saria. Giro atsegina sortu da Okendo plazan.



TXINTXARRI

## Adi entzun dituzte ipuinak

Bea Egizabal eta Cesar Marcosen ipuin kontaketa saiora joateko aukera izan dute Lasarte-Oriako txikiak. 51 ume batu dira Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan; adi-adi entzun dituzte Kontukantoi-ko kideen ipuinak. Jirafek lepo luzea zergatik duten azaldu diete lehenengo kontakizunean, eta ilargiak zein zapore duen bigarrenengan. Giro atseginean igaro dute saioa.

# Emakumeen zapalkuntzaren historia dantzen bidez josia

Gero Axular Dantza Taldeak 'Higa' ikuskizunaren emanaldia egin du Manuel Lekuonan. Donibane-Lohitzuneko sorginen jazarpena ardatz hartuta, ordu eta erdiko ikuskizuna osatu dute. 70 dantzari, bederatzi musikari eta lau abeslari aritu dira zuzenean

## Txintxarri

Emakumeek jasan duten zapalkuntza, euskaldunek berezko hizkuntza eta kulturagatik jasandako erasoak eta jarrera aurrerakoia duten gizarte taldeek euren eskubide eta ametsak lortzeko egin behar izan dute borroka. Hiru hari horiek gurutzatzen dira *Higa* ikuskizunean.

Gogoetarako bide izateaz gain, zirrargarria ere bada ikuskizuna. Zuzeneko musika, argiztapena, jantziak, estetika orokorra eta nola ez, dantzarien trebezia. Denak bat egiten du, zenbait unetan ikusleak aho zabalik utziz. Merezitako txaloak jaso zituzten larunbateko, urriaren 23ko emanaldiaren amaieran.

Lau ataletan banatutako istorioa da, bakoitza zappisei dantzek osatua. XVII. mendeko Donibane-Lohitzunen du abiapuntua, gizonezkoak arrantzara joaten zirenean eta emakumezkoak bertan geratu, etxeko zaindari. Bigarrenean, berriz, diru eta lur liskarrak argitzeko kanpotik etorritako

epaile bat agertuko da, bertako kultura eta hizkuntza ezagutzen ez dituen. Ondorioz, hirugarren zatiko epaiketa gertatuko da, sorgintzat hartuko baititu emakumezkoak. Amaierakoan, berriz, gizonezkoak Ternuatik bueltatu, eta liskarra amaituko da.

## Taldekode asko

Dantza taldean 260 dantzarik parte hartzen dute; ikuskizunean, ordea, 140k parte hartuko dute, baina ez denek funtziozuztietan. Lasarte-Oriakoan, adibidez, erdia aritu da, eta beste erdia, hurrengo emanaldian irtengo da agertokira: "Dantzari asko dira eta denek izan behar dute oholtzan aritzeko aukera".

Bederatzi musikari eta lau abeslari ere baditu dantza taldeak eta askotariko musika instrumentuak jotzen dituzte: txistua, trikitixa, gitarra, perkusioa, biolina, eskusoinua eta teklatura. Juan Luis Unzurrunzagak eta Andoni Iparragirrek zuzentzen dute talde guztia.

Estreinatzeko hilabete pare bat falta zitzaizkiela pandemiak bertan behera utzi zuen plangintza. Bi urteko lana izan da guztia prestatzea. Lehenik ideia pentsatu eta horren inguruko koreografiak eta musikak sortu zituzten, eta ondoren, jantziak aztertu eta istorioa nondik kontatu ikertu zuten. Hori zehaztuta zutela, dantza eta musikarekin beste urtebeteko lana egin zuten.

Iparragirrek jakinarazi du gainera, ikuskizuneko zenbait doinu berak hutsetik sortuak direla, eta beste batzuk, aldiz, doinu ezagunen moldaketak eginez osatzen dituztela. Eñaut Elorrieta, Amaia Zubiria, Benito Lertxundi edota Mikel Markez-en abesti ezagunetako doinuak moldatuta osatu ditu zenbait musika pieza.

Ikuskizunak, gainera, bat egiten du *DraveTzari* proiektuarekin eta kultur etxean bertan ikusgai egon den erakusketan jasotzen da gaitzaren eta Nora Aras Perea dantzariaren bizipena.



Dantza taldeko 70 dantzarik parte hartu dute Lasarte-Oriako Higa ikuskizunean. TXINTXARRI



Gogoetarako bide ematen duen emanaldia eskaini du Gero Axularrek. TXINTXARRI



Zuzeneko musikak lagunduta osatzen ditu dantza taldeak oholtzan gainera emanaldi guztiak. TXINTXARRI



XVII. mendeko Donibane-Lohitzunetik abiatuta, lau ataletan banatu dute ikuskizuna. TXINTXARRI

# Euskal Jaiak girotu du herria

Lehen ordutik iluntzera arte luzatu da Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako egitaraua. Erabat ohiko moduan aurrera eramaterik izan ez badute ere, ohi bezala, partaideek onena eman dute eta herritar ugari bat egin du festarekin

## Maitane Aldanondo

Hilabetetan gordetako festarako gogoa kalera atera zuen lasarteoriatar askok urriaren 23an. Horretarako aukera Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako zeregin bezalako Euskal Jaietan topatu zuten herritarrek. Lehen ordutik iluntzera festa giroak hartu zituen Okendo plaza eta inguruko kaleak, eta hartan murgildu ziren gehienak, gainera, baserriar jantziak egin zuten, antolatzaileek eskatutakoari jarraituz. Hala, bi urte atzera ohikoak izanda ere, ia ahaztuta zeuden uneak bueltan etorri ziren.

Txistularien diana izan zen jaira batzeko deia. Sagardotegi kaletik abiatuta, Zumabururantz jo zuten, doinu alaiekin jakinaraziz atorra edo gona, txapela edo zapia eta gainerakoak soinean jantzi eta festarekin bat egiteko garaia zela. Ordu eta erdiz aritu ziren han-hemen girotze lana egiten, ibilian edo geldi, Isla edo Askorena plazetan egin zuten bezala. Azken horretara heldu ahala, leihoetara

eta balkoietara atera ziren zenbait bizilagun eta pieza bakoitza txaloekin eskertu zieten musikariei.

Ordubetez luzatutako ibilbidea nahikoa ez, eta 10:30ean abiatu zen kantu dantza jiran ere parte hartu zuten txistulariek. Ttiriki Ttarrakako musika eskolako gazteak buru, bidea egiten joan ziren, zenbait tokitan gelditu, eta emanalditxoak eginda. Horietan, Xumelako kideek kanta ezagunak abestu zituzten, inguruan begira zeudenetako batzuen ahotsek lagunduta; eta Plaza Dantza ekimenekoek, berriz, hobe egiten dakitena: dantzan.

## Gogoa edo beharra

Zabalgunean jarritako azoka postuen aurrealdean eta biribila osatuta jarraitu zuten abestiak eta dantzak uztartzen. Jalguneko kideei bat eskaini zien Xumelak eta *Topa dagigun* izan zen amaierarako aukeratutakoa. Hala ere, plazako eszenariora bidea *Behin betiko* abestuz egin zuten. Izan ere, orduan hastekoa zen Ttakunek zenbait eragileri zuzendutako eskaintza ekitaldia.

Aitortzak iraun bitartean, azokako postuetan ez zen jenderik falta izan. Ohi baino erakusmahai gutxiago izan dira, baina bisitariek ez zuten hutsik egin. Eskuz egindako produktu eta elikagaiekin batera, eta Ttakunen 30. urteurreneko materiala erosteko aukera ere izan zuten.

Goizeko ekitaldiak amaituta, indarra berreskuratu eta arratsalderako prestatzeko, herri bazkaria egin zuten Ttakunenean. Paella eta postre goxoa jan zuten 70 bat lagunek. Bazkaloste musikatuan, entzun eta kantatu aritu ziren, batzuetan mikroa zutenek abestu baitzuten, eta beste batzuetan, mahaian bueltan zeudenek.

Hala, 17:30ak heldu ziren. Orduan, Okendoko oholtzara bidea hartu zuten Ttiriki Ttarrakako kideek erromeria hasteko. Plazan dantzarako gogoz zeuden haurrei poliki-poliki gaztetxoak eta helduak batzen joan zitzaizkien. Hasi eta ordubetera, plaza lepo zegoen, eta inor ez zegoen geldirik. "Gogoa baguenen" bat baino gehiago entzun zen, eta argi utzi zuten nahia edo beharra bazutela.



Txistulariek esnatu dute herria; erdigunean zehar egin dute diana. TXINTXARRI



Xumela koruko zenbait kide, eguerdiko kantu dantza jiran. TXINTXARRI



Herritar ugari bertaratu dira Okendo plazako azokara. TXINTXARRI



Lasarteoriatarrek gogotik abestu eta dantza dute arratsaldeko erromerian. TXINTXARRI



Paella goxoa jan dute 70 bat lagunek Ttakunenea elkartearen. TXINTXARRI





# TTAKUN K.E.



Makina bat elkarte eta eragilek lan egin dute Ttakun Kultur Elkartearekin azken 30 urteetan zehar. TXINTXARRI

# Lehen ekitaldia, bidelagunekin

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte beteko ditu azaroaren 16an. Ospakizun jardueri ekin die, Okendo plazan: hiru hamarkada hauetan berarekin batera lan egin duten eragile eta elkarteei eskerrak eman dizkie, eta oroigarriak banatu

## Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte beteko ditu azaroaren 16an, asteartearekin, baina lehenxeago hasi da ospatzen. Okendo plazan egindako ekitaldian, eskerrak eman dizkie hiru hamarkada hauetan berarekin lan egin duten elkarte eta eragileei. Oroigarri bana jaso dute Mari K a r m e n O r m a z a b a l lehenakariaren eskutik. Berak egin ditu aurkezle lanak, Rebeka Garzes-ekin batera.

Dozenaka elkarteak jaso dute aitortza, 50 inguruk. Ordezkarriak banan-banan igo dira eta Janire Arroyo herritarrek Ttakunen urteurrenean oinarrituta prestatu duen ilustrazioa jaso dute, mezu honekin: "Mila esker!". Hori baino lehen, zenbait eragilek emanaldi laburrak egin dituzte Okendoko oholta gainean.

Euskal Jaietako ordu eta erdiko kantu dantza jira amaitu eta dagoeneko motorrak bero zituztela baliatuta, Xumela koruko kideak igo dira oholtzara, eta emanaldi sortari ekin diote: *Behin betiko* abestia kantatu eta dantzatu dute, ikus-entzuleen laguntzarekin. Horren ostean, Ttiriki Tttarraka eskola, Earra bertso eskola, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Irakurle Txokoa eta Buruntzaldeako Gazte Sortzaileak aritu dira. Bakoitzak bere errepertorioko pieza edo testu (Irakurle Txokoko kasuan) bana taularatu du.

**LASARTE-ORIAKO 50 ELKARTE ETA ERAGILE INGURUK JASO DUTE TTAKUN KE-REN AITORTZA**

Eskertza jaso eta talde argazki historikoa atera aurretik, Erketz dantza taldeko lagunek agurra dantzatu diete oholta gainean zeuden guztiei. Bien bitartean, Ttakunen programetako bat den Gaztekluba-ko gazteek eskuz egindako txokolatezko gailera goxoak banatu dituzte. Elkarteak laster iragarriko ditu urtemuga berezi hori ospatzeko jardura gehiago, sare sozialetan eta TXINTXARRI aldizkarian.

## Produktuak salgai

Ttakunek zenbait produktu berezi jarri ditu salgai: zorro arruntak eta motxila edo poltsa gisa erabili daitezkeen zorroak. Horietakoren bat erosi nahi duenak elkartearekin jarri behar du harremanetan: idatz dezake [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidera, edo 943-37 14 48 zein 646 82 44 66 telefono zenbakietara deitu.



Emanaldiak egin dituzte eragileetako batzuk, eta gailetak jaso ere bai. TXINTXARRI



Alebin Ligako lehen jardunaldia Maialen Chourraut kiroldegian lehiatu zuten. TXINTXARRI

## Marka onak, igerilekuko lehen hitzorduetan

Alebin eta Neguko Ligako lehen jardunaldiak jokatu dira urriaren 23an. Buruntzaldea IKTko absolutu, junior eta infantilek hamasei marka ondu dituzte; alebin mailako gazteak, berriz, lehiaketara itzuli dira urte eta erdiko etenaren ostean

### Txintxarri

Buruntzaldea Igeriketa Kirol Taldea-ko igerilariak uretara egin dute jauzi. Denboraldiari hasiera emateko bi hitzordu izan dituzte: Alebin Ligako 1. jardunaldia Lasarte-Oriako

Maialen Chourraut igerilekuan eta Neguko Ligako 1. jardunaldia Ordizian. Bietan ederki lehiatu dute igeriketa taldeko gazteak.

Urriaren 23an, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekua alebinen itzuleraren lekuko izan

zen. Urte eta erdi lehiatu gabe egon ostean, berriro ere, txapelketei ekin diete. Gainera, euren gurasoen zein senideen berotasuna sentitu ahal izan zuten igerilari gazteek igerilekuan bertan.

Buruntzaldeako hamabost igerilarik jokatu zuten proban eta oinarriko bi proba izan ziren lehiatutakoak, 200 m. libre eta 100 m. bular probak. Lehen urteko alebinek gainera 50 m. libre proba ere izan zuten eta neskek mailan, 4x100 m. errelebo-lasterketa ere izan zen.

Buruntzaldea IKTko Borja Azpeztegia entrenatzaileak zaldu duenez, jardunaldi berezia izan zen. "Horrenbeste denbora lehiatu gabe egon ostean, berriro ere egoera honetan gure haurrek nola jokatuko zuten ez genekien", adierazi du.

Zalantza guztiak lehen metroetan uxatu zituztela ere onartu du: "Lehen metroetatik guztiak gogotsu ekin zioten eta 200 m. libre bezalako proba zail baten aurrean, inolako beldurrik gabe eta ausardiaz egin zuten igeri".

Pozarren dago igeriketa taldeko prestatzaile guztiak maila ederra erakutsi zutelako, baita lehen postuetan sailkatu zirelako ere.

Hurrengo hitzorduei begira, teknikoki hobekuntza batzuk egin behar dituztela jakitun da Apeztegia. Hala ere, lanean ildo beretik jarraituko dute eta igerilariak hartutako martxari eustea espero du kirol taldeko arduradunak.

### Markak hautsi

Buruntzaldeako absolutu, junior eta infantil mailako hamabi igerilarik ere igerilekura jauzi egin zuten Neguko Ligako 1. jardunaldian.

Guztira, hamasei marka pertsonal ontea lortu zuten:

- Aintzane Sarobe: 200 m bizkar proba, 2.27,30.
- Nora Imaz: 50 m. tximeleta proba, 34,49.

- Garazi Etxeberria: 50 m. bular proba, 36,17 eta 50 m. tximeleta proba, 33,72.
- Saioa Elola: 1500 m. libre proba, 21.01,41.
- Iker Gorostegui: 50 bular proba, 40,79 eta 200 m. lau estilo proba, 2.40,18.
- Iker Gandia: 50 m. bizkar proba, 36,10.
- Jurgi Sukunza: 50 m. bizkar proba, 35,28 eta 200 m. lau estilo proba, 2.52,12.
- Miren Sarobe: 50 m. bular proba, 41,28; 50 m. tximeleta proba, 38,37 eta 200 m. lau estilo proba, 2.51,44.
- Alba Escribano: 50 m. bular proba, 46,50 eta 200 m. lau estilo proba, 3.05,00.
- Irati Etxeberria: 100 m. libre proba, 1.20,87.

Igeriketa taldeko arduradun Apeztegiak nabarmendu duenez, denboraldiko lehen txapelketan ez da erraza erritmo egokian lehiatzea. Horren harira, txapelketan "oraindik txispa apur bat falta" dutela ikusi du kirol elkarte arduradunak. Intentsitate hobean lehiatzeko "pixkanaka entrenamenduko erritmoa" igoko dituela iragarri du Buruntzaldea IKTko prestatzaileak.

Entrenamendu moldaketa horren ondorioak azaroaren 6an, Neguko Ligako hurrengo hitzorduan aztertu ahalgo dituzte igeriketa taldeko kideek.

## DENBORALDIKO HITZORDUEI BEGIRA HOBKUNTZAK EGIN BEHAR DITUZTE ALEBINEK

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

#### Ostadar SKT - Leintz Arizmendi

Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

#### GORENGOEN MAILA

#### Zumaiaiko FT - Ostadar SKT

Larunbata. 17:45. Aita Mari, Zumaian.

#### ERREGIONALEN 1. MAILA

#### Ostadar SKT - Usubil FT

Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

#### JUBENILEN 1. MAILA

#### Ostadar SKT A - Urnieta KE A

Igandea. 12:30. Michelin kirol gunean.

#### Euskaldun SD - Ostadar SKT B

Larunbata. 17:45. Ubitarte, Andoainan.

#### OHOREZKO KADETE MAILA

#### Aizkorri Goierri FT - Ostadar SKT

Igandea. 10:00. Alustiza, Seguran.

#### KADETEEN 1. MAILA

#### Texas Lasartearra CF - Usubil FT B

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

#### Amara Berri KE - Ostadar SKT A

Larunbata. 09:00. Martutene, Donostian.

#### Ostadar SKT B - Mundaiz SCD

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

#### OHOREZKO INFANTIL MAILA

#### Lazkao KE - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Arizti Handi, Lazkaon.

#### INFANTILEN 1. MAILA

#### Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT A

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

#### Ostadar SKT B - Usubil Udarregi FT B

Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.

#### ALEBIN MAILA, AURRETIKO FASEA

#### Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT

Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.

#### ARETO FUTBOLA

#### 1. MAILA

#### CD Mondrate - Eguzki Arkupe Rehab.

Igandea. 11:00. Musakola kir., Arrasaten.

#### 2. MAILA

#### Eguzki ISU Leihoak - Miren Taberna OKE

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.

#### GAZTEEN MAILA

#### Lauburu KE Ibarra B - Eguzki AF 2KN

Larunbata. 10:00. Belabieta kir., Ibarra.

#### INFANTILAK

#### Eguzki AF - Antiguoko Infantil Futsal

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

#### JUDO

#### KATA IKASTAROA

#### LOKEko judoek Euskadiko

federazioak antolatutako kata ikastaroen parte hartuko dute.

Larunbata. Usabal kiroldegia, Tolosan.

#### PILOTA

#### NAGUSIAK 3. MAILA

#### Otsabio 1 - Intza KE

Larunbata. 11:00. Beotibar, Tolosan.

#### JUBENILAK 2. MAILA

#### Ataun 1 - Intza KE

Ostirala. 18:00. Auzoeta, Ataunen.

#### KADETEAK 2. MAILA

#### Intza KE - Azkoitia

Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.

#### LASTERKETAK

#### LEKITTO BIZIRIK

#### Lekitto Bizirik lasterketan parte

hartuko dute hainbat herritarrek.

Astelehena. 12:00. Lekeitio, Bizkaian.

#### MARTXA

#### KATXALIN MARTXA SOLIDARIOA

Katxalin Martxa Solidarioa antolatuta

da. Lau kilometroko ibilbidea egingo

dute parte-hartzaileek.

Igandea. 11:00. Alderdi Eder, Donostian.

# Zarautz Beltzak taldeak, bigarren garaipena

Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz taldeak Michelin kirol gunean jokatu du Vithas Gaztediren aurka; beltzak 44-32 gailendu dira. Hainbat lasarteoriatar izan dira jokoan. Ohorezko B Mailako taldean, berriz, Ander Rekondo herritarra lehiara itzuli da

## Txintxarri

Garaipen ederra ikusi ahal izan zuten urriaren 23an Michelin Kirol Gunera joan ziren ikusleek. Ez zen ordu a proposena -14:50ean jokatu zen partida- baina zaletuek ez zuten huts egin eta Euskal Ligako 2. Mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldea animatu zuten. Jokalariak ederki erantzun zioten harmailaren berotasunari eta 44-32 irabazi zioten Vithas Gaztedi taldeari.

Indartsu atera ziren Zarautzeko jokalaria. Beltzak taldea osatzen duten herritarrek gainera euren onena erakutsi nahi zuten eta hainbat jokaldietan protagonista izan ziren. 10. minutuan markagailua ireki zuen Zarautzek entsegu baten bitartez, eta bigarren entsegu bat ere egin zuten, aurkariak lehen puntuak lortu bitartean. 21. minutuan, Gaztedi tartea murriztu zuen, entsegua eta entsegu gauzatzea eginez, 10-7. Ederki erantzun zuen Zarautzek, ordea. Gavi Gavilan herritarrek entsegua egin eta tartea ireki zuen, berriro ere. Nahiz eta atzetik joan, gasteiztarrek ez zuten amore eman eta drop bat lortu zuten. Tamalez, ahalegina antzua izan zen, lehen zatia bukatzeaz zegoela Jokin Beloki herritarrek entsegua eta entsegu-gauzatzea lortu baitzituen. Atsedena 22-10 iritsi ziren.

Bigarren zatian, jokoak berdin jarraitu arren, bi taldeek eraso gehiago gauzatzea lortu zuten eta jokaldi eta entseguez gozatu zuten ikusleek. Beltzek ongi egin zuten lan euren errenta mantendu eta handitzeko. Lasarteoriatarrek ere jarri zuten euren harritxo, 27 puntutik zazpi; Julen Belokik, zein Julen Espinosa gazteak entsegu-gauzatze bat eta entsegu bat lortu zituzten, hurrenez hurren.



Mikel Ibisate herritarra Gaizeizko jokalaria saihesten. TXINTXARRI

Era horretara, denboraldiko bigarren garaipena eta bost puntuak lortu zituzten beltzak.

## Lehen garaipena

Ohorezko B Mailako taldeak, berriz, denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuen etxean. Euskal Ligako taldearen antzera, Vithas Gaztediren aurka neurtu zituen indarrak Zarautzko Asti zelaian eta 37-15 gailendu zen.

Partida hasieratik aurretik izan zen Zarautzko taldea. Defentsa lan ona egin eta gasteiztarrek gutxitan gerturatu ahal izan izan ziren entsegu marrara. Lehen puntuak, esaterako, zigor-ostikoz lortu zituen Gasteizko taldeak, zortzigarren minutuan, eta lehen

zatia amaitzeaz zegoela egin zuten entsegu bat.

Neurketa horretan Lasarte-Oriak ordezkaria izan zuen: Ander Rekondo. Urtebeteko etenaldiaren ostean, zelaira itzuli zen herritarra; 68. minutuan atera zen jokatzera.

## Sistema aldaketa

Denboraldi honetan, Ohorezko B Mailak berrikuntza bat izango du lehiaketa sisteman. Lehen itzulia amaitzean, sailkapeneko lehen hiru postuetan dauden bederatzi taldeek -hiru talde daude multzoko- igoera faserako sailkapen multzoa osatuko dute.

Euren artean liga jokatu ostean, lehen lau taldeek Ohorezko Mailarako igoera lehiatuko dute.

## Atsedena

Bi taldeek atsedena izango dute azaroaren 7ko asteburura arte. Ohorezko B mailako taldeak Universitario Bilbao Rugbyren zelaia bisitatuko du azaroaren 6an; Euskal Ligako 2. Mailako taldeak, berriz, Eibar izango du aurrez aurre.

**GESALAGA OKELAN ZARAUTZKO SENIOR TALDEEK VITHAS GAZTEDI HARTU DUTE MENDEAN**



LOKEko judokak, Gipuzkoako txapelketan lortutako dominekin. TXINTXARRI

## LOKEko judokek, bost domina Gipuzkoako txapelketan

LOKEko senior mailako judoka guztiak podiumera igo dira: zilarrezko domina bat eta brontzezko lau batu dituzte

## Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judo sailak bi hitzordu izan zituen urriaren 24an: senior mailako Gipuzkoako txapelketa eta Euskadiko federazioak antolatutako entrenamendua.

Erreterian antolatu zen Gipuzkoako txapelketan LOKEko bost senior izan ziren lehian eta bostek domina eskuratu zuten. Asier Sagastik 100 kilo azpiko mailan lortu zuen emaitzarik onena, zilarrezko domina. Gainerako judokak ere euren mailako podiumera igo ziren, hirugarren mailara, hain zuzen: Josu Olmos 66 kilo azpiko mailan, Abayuba Gutierrez 73 kilo azpiko

mailan, Haritz Urdangarin 81 kilo azpiko mailan eta Fermin Balda, 90 kilo azpiko mailan.

Gorka Aristegi entrenatzaileak aurrerantzean izango dituzten lehiaketak prestatzeko balio izan duela nabarmendu du.

Txapelketaren ostean, seniorrak Mario Herrero, Ekhi De La Cruz eta Unai Guisado kadeteekin zein Aitor Santos infantilarekin egin zuten bat Euskadiko selekzioak antolatutako entrenamenduan.

Bide batez, Gorka Aristegi arduradunak MSI Grupo enpresari eskerrak eman nahi dizkio taldea babestu eta euren jarduna aurrera eramaten laguntzeagatik.

## Lasarteoriatarrek, lasterketako lehen postuetan

Donostian, Huescan (Aragoi) eta Oixen (Katalunia) antolatutako probetan lehiatu dira herritarrek

## Txintxarri

Mendi zein errepide lasterketa ugari ari dira antolatzen Euskal Erkidego autonomoan zein kanpoan. Lasarte-Oriako korrikalariak topera dabilta azken asteburuetan eta hainbat probatan lehen postuetan izan dira.

Urriaren 17an, IV Medieval Trail Montearagon proban (Huesca), David Garcia Romero herritarra garaile izan zen. 21 kilometroko ibilbidea egin zuen Garciak.

Egun horretan bertan, 15K Donostiako Klasikoa jokatu zen.

Proba honek hamabost zein eta bost kilometroko ibilbideak izan zituen eta hainbat herritar izan ziren lehian. Proba luzean, Anabel Eleno Agustin herritarra 50 urte baino gehiagoko podiumeko hirugarren mailara igo zen.

Bestalde, urriaren 23 eta 24an, Trepitja Garrotxa Ultra Traila egin zuen Borja Granado Macazaga herritarra Oix-en (Katalunia). Helmutara bosgarren postuan iritsi zen. 83 kilometro eta 4.750 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea 10.46.25 egin zuen.

# Harrobiko taldeek, hasiera bikaina

Eguzki Areto Futbola klubeko gazte zein infantil taldeak martxan dira. Gazteen Mailan ari direnek hirugarren jardunaldian Eraini irabazi eta bere multzoko buru dira. Infantilek, berriz, urriaren 16an jokatu dute estreinakoz eta garaipena lortu dute

## Txintxarri

Gazteen Mailako Eguzki 2KN areto futbol taldea bere mailako lehen postuan da zazpi punturekin. Aurreko jardunaldian husna berdindu ostean, garaipenerako bidera itzuli zen talde hori-berdea Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zen partidaren. Lasarteoriarrek Erain hartu zuten mendean, 12-0.

Taldeko entrenatzaile Francisco J. Kixki Perez-ek azaldu duenez, Eraineko taldea kadetez osatu zegoen: "Kadete eta jubenil taldeak nahastu dituzte aurten zortziko bi multzo osatu ahal izateko. Eta partida honetan, bien arteko mailaren aldea agerikoa izan da".

Eguzkikoa, berriz, talde osatua da entrenatzaileak aipatu modura: "Urteak dira elkarrekin jolasten dutela eta batzuk kuadrilla berekoak dira".

## Sailkapen fasea

Aurten lehiaketa sisteman aldaketa bat izango dute eta bi fase jokatu dituzte Gazteen Mailako taldeek.

Azaroaren 21eko asteburura arte, itzuli bateko sailkapen fase bat izango da. Multzoko bakoitzeko lau hoberenek -guztira, zortzi talde- liga



Eguzki 2kn nagusi izan zen Erainen aurka. TXINTXARRI

lehiatuko dute; gainerako taldeek, berriz, kontsolazio fasea.

"Pausoz pauso joango gara. Ongi lan eginez gero, lehen fase hau arazorik gabe gaindituko dugu. Ostean, lesioak edo bestelako arazorik sortzen ez bada, lehen postuetan egoteko aukerak ditugula uste dut", nabarmendu du Perezek.

Taldeak hasiera gorabeheratsua izan duela onartu du prestatzaileak: "Batzuk urte erdia egin dute entrenatu gabe eta hainbat jokalariek min hartu dute berriro entrenamenduetan hastean".

Hala ere, gazteak gogoz lanean ari direla ere aipatu du: "Jarrera ona dute eta lanean ari dira. Orain gehiago trebatu behar dira". Gazteen taldeaz gain,

aurten Eguzkik infantilen taldea ere izango du lehian.

## Lehen garaipena

Urriaren 16an, egin zuten debuta txikiek Aloña Mendi KE Aren aurka. Ederki hasi zuten denboraldia, gainera; nagusitasunez gailendu ziren, 2-14.

Ez zen esperotako emaitza izan Gorra Redondo taldeko arduradunak azaldu duenez: "Futboleko ez bezala, maila honetan lehen eta bigarren urteko infantilek parte hartzen dute. Gureak lehen urtekoak dira eta gainera, lehen urte dute lehian". Helburua partidak irabazi eta sailkapeneko lehen postuetan egotea ez dela nabarmendu du Redondok: "Gazteek ikastea eta ongi pasatzea nahi dugu".

# Aitor Manso podiumean izan da Urrakiko Igoeran ere

Bigarren postua lortu du sailkapen orokorrean eta 7. mailako lehena izan da herriko gidaria

## Txintxarri

Aitor Manso gidaria podiumak metatzen doa. Urriaren 24an, Euskadiko Mendi Igoeren txapelketako laugarren proba lehiatu zuen herritarrek, Urrakiko igoera. Sailkapen

orokorreko bigarren postua eskuratu zuen Mansok; 7. mailako lehen sailkatua ere izan zen.

Azpeitiatik Bidaniara 6,3 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten lasterketan parte hartu zuten 32 gidariek.

Joseba Iraola faboritoak ez zuen huts egin, eta Norma NP01 barketa izan zen azkarrena jardunaldi osoan zehar. Azken igoera ofizialean egin zuen markarik onena, 02.54,562.

Bigarren postuan, Aitor Manso herritarra sailkatu zen. Gidari gazteak, ohi bezala, indarrak neurtu zituen entrenamendu saioan eta hirugarren denbora egin zuen, 03.23,230. Saio horretan ikusi zen Iosu Beitia beteroa izango zuela bigarren postua lortzeko aurkari zuzena.



Ostadar eta Eibarren arteko lehia berdindua izan zen lehen bi laurdenetan. TXINTXARRI

# Senior 3. Mailako taldeak landutako garaipena lortu du

Eibar Saskibaloia B taldeari gailendu eta denboraldiko lehen garaipena erdietsi du, 63-44

## Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko Senior 3. Mailako taldeak ligako bigarren jardunaldia jokatu zuen urriaren 24an, Maialen Chourraut kiroldegian. Eibar Saskibaloia B taldearen aurka neurtu zituzten indarrak urdin-beltzek eta denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuten.

Bi taldeak gogotsu atera ziren kantzara eta lehen minututik lehia berdindua izango zela ikusi zen. Aurkariaren erasoei ongi erantzun zieten bi taldeek eta laurdena amaitzean 13nako berdinketa zegoen markagailuan.

Bigarren laurdena hasi eta Eibarko taldeak berdinketa apurtu zuen biko batekin. Ederki erantzun zion Ostadarrek hiruko batekin. Partidak lehen laurdenaren antzera amaituko zela zirudien arren, etxeko taldeak tarte txikia irekitzea lortu zuen azken minutuan. Bi saskiratze eta hiruko bat egin eta 33-27 joan ziren atsedenaldira.

Ostadarrek defentsan gogor ekin zion hirugarren laurdenean eta aurkariak hamar puntu besterik ezin izan zituen egin. Etxekoak erasoan ere fin ibili ziren eta falta pertsonaletako jaurtiketak ere ongi baliatu zituen markagailuan aurrea hartzeko, 54-37.

Azken laurdenean saskiratze gutxi egin zituzten. Eibarrek ez zuen amore eman eta erasora jo zuen. Ostadarrek falta pertsonalak egitea besterik ez zuen izan aurkaria geratzeko, hiruko bat ere lortu zuen erantzun modura. Zorionez eibartarrak ez ziren fin ibili pertsonaleko marran eta hamarretik lau puntu bakarrak lortu zituen.

Aurkariak aukera horiek galdu ostean, etxeko taldeak egoera baretu eta euren jokoak eginez sei puntu egin zituen. Eibarrek, erantzunez, hirukoa egitea lortu zuen partida amaitzean zegoela. Partziala 9-7koa izan zen.

Garaipeneko bi puntuak eskuratu ostean, azaroaren 6ra arte atsedena izango du taldeak.



Manso (txuriz), probako podiumean.

RUBÉN MONTORI

Lehia estua izan zen lehen igoera kronometratuan. Hogei ehunekorengatik lortu zuen Beitiak bigarren postua; Mansok 03.14,532 egin zuen.

Azken igoeran, berriz, azkoitiarra ez zen irten eta Mansok bere denbora bost segundotan ondu zuen, 03.09,445.

Euskadiko Mendi Igoeren txapelketako azken proban (Sollubeko igoera) denboraldiari agur esango diote. Euskadiko txapelketa ez bada, Gipuzkoakoa behintzat eskura du Mansok.

# LASARTE-ORIA

## GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena, herrian bertan!



Herriko  
GIDA KOMERTZIALA  
sarean ikus dezakezu

[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
  - HORMA-ARMAIRUAK
  - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

**ILLARRETA**  
ITURGIINTZA  
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 606 686 615 eta 943-36 17 52.  
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigaraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)

ANTONIO ARREGUI, S.L. **AA** eraikuntza materialak  
IGAMIA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNeko KONPLEMENTUAK

[www.gamma.es](http://www.gamma.es)

<b>BILTEGI OROKORRA</b> Oria Etorbidea, 6 20160 Lasarte-Oria Tel: 943-36 64 73 <a href="mailto:aarreguis@gmail.com">aarreguis@gmail.com</a>	<b>ERAKUSKETA</b> Goikale, 2 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943-36 59 47 Faxa: 943-36 59 47
---	---

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria



Elektrizitatea



Kristaldegi eta leihoak

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37-17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

**ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak, armairuak, eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behea. LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

☎ 943-36 64 95  
✉ [ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Gida honetan azaldu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:  
943 37-14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## ZORION AGURRAK



**Noa**  
Zorionak Noa! 5 muzu amaboz, aitaboz eta Albaren partetik!



**Fermin**  
Zorionak, Fermin! Marbxa honetan, bi tarta erosi beharko ditugu kandela guztiak jartzeko! Muzu asko familiaren partez.



**Javi**  
Zorionak aitaboz! Zure etxeko hiru nesken partetik. Asko maite zaitugu! 34 muzu goxo zuretzako.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29	LASA
LARUNBATA, 30	DE MIGUEL
IGANDEA, 31	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 1	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 2	GIL
AZTEAZKENA, 3	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 4	URBISTONDO

**EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21


## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

**URTE OSOKO**  
Store edo Android  
Informazio gehiago

**GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri App  
Marketen  
[www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## KOMIKIA



## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943-37 16 29  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84  
KIROLDEGIA: 943-37 61 82  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:  
943-37 61 81  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79  
KIUB: 943-36 16 05  
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21  
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60  
DYA: 943-46 46 22  
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53  
UDALTZAINAK: 943-36 24 42  
ERTZAINAK: 943-53 88 40  
SOS DEIAK: 112

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

**SALDU**  
Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06.

## ERRENTAN EMAN

Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89.

Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia: 648 20 08 11.

## LANA

**ESKAINITZA**  
Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

## ESKARIA

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo

nuke. Etxeko lanetan, garbiketetan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketetan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko

prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38. Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketara lanak egiteko. Etxera, orduka, gauetan edo

ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98. Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

## SALEROSKETA

**SALDU**  
Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95. Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. 670 20 78 14, Amaia.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus 646.824466

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitate

Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

**Banatzaitzaileak:** Igone Mendizabal,  
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,  
Julene Iraola, Egoitz Epelde,  
Sergio Hernandez, Ander Hazas  
eta Iñigo Garcia.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, SA

**Lege Gordailua:** SS-513/93  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.500 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Erakusketa.** Bizikidetzarako memoria para convivir erakusketa antolatu du Lasarte-Oriako Bizikidetzako Foroak. Azaroaren 2an irekiko ditu ateak, asteartearrekin. Euskal Herriko eta Lasarte-Oriako indarkeriaren historia biltzen du, eta hilabete osoan zehar ikusgai egongo da. Ekimenaren xedeak ugariak dira: herriko biktimak "bere pluraltasunean" aintzat hartzea, terrorismoaren eta indarkeriaren ondorio sozial eta pertsonal larriak ezagutaraztea eta onartzea, eragindako kaltearen aitopenean oinarritutako memoria kolektiboa eraikitzea, eta herritarrek konpromisoa hartzea giza eskubideen urraketen aurrean.

Azaroaren 2tik 30era, 17:30etik 20:30era (larunbatetan, 11:00etatik 13:30era), Antonio Mercero aretoan.

## IGANDEA 31

### LASARTE-ORIA Zinema

**D'Ortagnan eta hiru Mosketxakurrak** filma ikusi ahalko dute herritarrek. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Gau Beltza antolatu dute Zabaleta Auzolan auzo elkarteak eta Ttakun Kultur Elkarteak:

**18:30ean,** irekiera. Bideo emanaldia. Etorri zure moztorroarekin!

**19:00etan,** beldurrezko ibilbidea. Jarraian, beldurrak erretzeko ekitaldia, musika... Amaitzeko, bakoitzak etxetik ekarritako ogitartekoa jango dute, guztiak elkarrekin.

Antolatzaileek ohartarazi dute jarduera bertan behera utziko dutela, baldin eta eguraldi txarra egiten badu. Zabaleta auzoa, 18:30ean hasita.

### LASARTE-ORIA Zinema

**Entre rosas** filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTEARTEA 2

### LASARTE-ORIA Erakusketa

**Bizikidetzarako memoria** erakusketa

irekiko du Lasarte-Oriako Bizikidetzako Taldeak. Batetik, euskal gatazkaren testuinguru orokorra eskainiko du, eta bestetik, Lasarte-Orian jazotakoa.

Antonio Mercero gunea, 17:30etik 20:30era.

## ASTEAZKENA 3

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Gure Esku-ren zuzendaritza kontseiluko kide eta EHUko irakasle Mario Zubiagak **Inoiz baino gehiago, Gure Esku** hitzaldia emango du. Oriarte Larrekoetxe, 19:00etan.

### LASARTE-ORIA Literatura

Asun Moreno herritarrek **Merci mami** liburua aurkeztuko du. Hiru belaunaldi desberdinetako kideak dira liburuaren ardatz, era batera edo bestera: amona, protagonista delako; alaba, idazlea delako; eta biloba, ilustratzailea delako. Kultur etxea, 19:30ean.

## OSTIRALA 5

### LASARTE-ORIA Zinema

Azaroaren lehenengo saioa egingo du Okendo Zinema Taldeak: **Maixabel** filma proiektatuko du. Sarrerek 5,50 euro balio dute eta [www.ticket.kutxabank.es](http://www.ticket.kutxabank.es) webgunean eros

daitezke honezkero.

Kultur etxea, 20:30ean.

## LARUNBATA 6

### LASARTE-ORIA Antzerkia

**Azken balea** lana taularatuko du Tomaxen abenturak konpainiak. Sarrerek 3,80 euro balio dute eta [www.ticket.kutxabank.es](http://www.ticket.kutxabank.es) webgunean eros daitezke.

Kultur etxea, 17:00etan.

## ASTEAZKENA 10

### LASARTE-ORIA Literatura

Bea Egizabal herritarrek istorio harrigarriak kontatuko dizkie etxeko gazteenei.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko udal liburutegian, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Opera

Piotr Ilich Tchaikovsky konpositorearen **El cascanueces** opera egokitu eta taularatu du Royal Ballet konpainia ospetsuak. Emanaldi hori proiektatuko dute Lasarte-Orian. Sarrerek 7,5 eta bederatziko euro artean balio dute eta [www.ticket.kutxabank.es](http://www.ticket.kutxabank.es) webgunean eros daitezke honezkero.

Kultur etxea, 19:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**D'Ortagnan eta hiru Mosketxakurrak**  
Igandea 31: 17:00.

**Entre rosas**  
Igandea 31: 19:30.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

**Pikachu detektibea**  
Larunbata 30: 12:00.

**Tom eta Jerry**  
Igandea 31: 12:00.

**Bebe jefazo: negocios de familia**  
Larunbata 30: 17:00.  
Igandea 31: 17:00.

**Entre rosas**  
Larunbata 30: 19:30, 22:00.  
Igandea 31: 19:30.  
Astelena 1: 19:30, 22:00.

### HERNANI

#### BITERI

**Scape Room 2**  
Ostirala 29: 22:30.  
Larunbata 30: 19:30, 22:30.  
Igandea 31: 19:30.

**Aita, zontzia naiz**  
Larunbata 30: 16:30.  
Igandea 31: 16:30.

#### USURBIL

#### URBIL

**Venom: Habrá matanza**  
Ostirala 29: 16:00, 18:30, 21:00, 22:45.  
Larunbata 30: 16:00, 18:30, 21:00, 22:45.  
Igandea 31: 16:00, 18:30, 21:00, 22:45.

**El espía inglés**  
Ostirala 29: 16:10,

18:55, 21:50.  
Larunbata 30: 16:10, 18:55, 21:50.  
Igandea 31: 16:10, 18:55, 21:50.

**El último duelo**  
Ostirala 29: 15:55, 18:25, 19:20, 21:50.  
Larunbata 30: 15:55, 18:25, 19:20, 21:50.  
Igandea 31: 15:55, 18:25, 19:20, 21:50.

**Érase una vez en Euskadi**  
Ostirala 29: 19:00, 21:35.  
Larunbata 30: 19:00, 21:35.  
Igandea 31: 19:00, 21:35.

**Halloween Kills**  
Ostirala 29: 19:55, 22:35.  
Larunbata 30: 19:55, 22:35.

Igandea 31: 19:55, 22:35.

**La crónica francesa**  
Ostirala 29: 21:10.  
Larunbata 30: 21:10.  
Igandea 31: 21:10.

**La familia Addams 2: La gran escapada**  
Ostirala 29: 15:45, 18:40.  
Larunbata 30: 15:45, 18:40.  
Igandea 31: 15:45, 18:40.

**Ron da error**  
Ostirala 29: 16:00, 17:15.  
Larunbata 30: 16:00, 17:15.  
Igandea 31: 16:00, 17:15.

**Sin tiempo para morir**  
Ostirala 29: 21:05.  
Larunbata 30: 21:05.  
Igandea 31: 21:05.



LABURPENA

### D'Ortagnan eta hiru Mosketxakurrak

**Zuzendaria:** Toni García. **Gidoia:** Douglas Langdale. **Liburua** Alexandre Dumas Père. **Argazkia:** Animazioa. **Musika:** Manel Gil-Inglada. **Ekoizleak:** Apolo Films, Cosmos-Maya. **Herr.:** Espainia (2021). **Iraupena:** 84 minutu.

## Klasiko baten birmoldaketa

Etxeko txikiak Alexandre Dumasen **Hiru mosketariak** eleberrian oinarritutako animaziozko filmaz gozatuko dute haurren zinema atalean.

Pertsonaiak, ordea, ez dira gizakiak izango, txakurrak baizik. Ez da moldaketa hau egiten den lehen aldia, 1981. urtean, filmaren izen bereko marrazki bizi-dunetako telesaila baitzegoen ikusgai telebistan; 1990. urtean, **D'Ortagnan itzulera** jarraipena ere eskaini zen.

Filmak D'Ortagnan gaztearen istorioa kontatzen du. Mutil sutsu eta errugabea da. Bere aitaren antzera, Mosketxakur izan nahi du

eta bere ametsa betetzeko Parisera doa Rofy zaldi leiala lagun duela.

Bertan milaka pertsonaia ezagutu eta abentura zirraragarriak biziko ditu. Esate baterako, Pom saguaren lagun egin eta Mosketxakur ospetsuekin bat egingo du gazteak (Athos, Portos eta Aramis).

Euren laguntzarekin, Richelieu kardinal gaiztoari aurre egingo diote. Adiskidetasuna eta elkarlaguntza beharrezkoak izango dira helburua betetzeko.

Amodioarentzat ere tartea izango du; Juliettez maiteminduko da.

Zineuskadik sustatzen duen **Zinema Euskaraz** programari esker euskaraz ikusi ahalko da filma.



**eskatu saskiak**  
eta eman hauspoa euskarari  
Nafarroa hego eta erdialdean



errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

**Herriak egiten du herria**



**Eman izena urriaren 30a baino lehen:**

Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA

kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89



Antolatzaileak

**GAU BELTZA**  
Beldurrak piztu,  
iluntasuna bizi.

Eta  
**zuek?**  
Zer  
**ospatzen**  
duzue?

**URRIAK 31:  
ZABALETAN**  
BASOTXO PLAZAN  
18.30-IREKIERA  
(ETORRI MOZORROTUTA)  
BIDEO EMANALDIA

19:00- BELDURREZKO  
IBILBIDEA  
JARRAIAN: BELDURRAK ERRETZEA, MUSIKA...

BUKAERAN: BAKOITZAK ETXETIK  
EKARRITAKO OGITARTEKOA  
JANGO DUGU ELKARREKIN

\*EGURALDI TXARRA EGINEZ GERO BERTAN  
BEHERA GERATUKO DA

TTakun 30urte

ZABALETA AUZOLAN